



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko azaroaren 20a

141. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, aldatzen duena Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren testu bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitakoa (3. or.).
- Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko Foru Lege proiektua. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (6. or.).
- Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege proiektua. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (7. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroan etxebizitzarako eskubide subjektiboa arautzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (8. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroan etxebizitzarako eskubide subjektiboa arautzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (8. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (9. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriz ere protokolo bat sina dezan Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzarekin, terrorismoa goratzeko pintadak ezabatzeko. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru dekretu bidez arau ditzan zer baldintza higieniko-sanitario bete behar dituzten lehen mailako ekoizpenak eta hari lotutako jarduerak nahiz salmenta zuzena edo merkaturatze-zirkuitu laburrekoa egiten duen nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategi txiki bati lotutako nekazaritzako elikagaien eraldaketak eta merkaturatzeak. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (11. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, nekazaritzako elikagaien industrian inbertitzeko laguntzen 2017ko deialdiari buruzkoa. Mariano Herrero Ibáñez jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, helduen txerto-egutegian txerto polisakaridoaren ordezkariaren aurkako txerto konjugatua sar dadin SEMG, SEMERGEN eta ANPE elkartearen ordezkariaren egindako eskariari buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, arrisku-taldeetan pneumoniaren aurkako txertoa doakoa izateari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Espainiako gainontzeko erkidegoen aldean langabeziak legegintzaldi honetan Nafarroan izan duen bilakaerari buruzkoa. Luis Casado Oliver jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren uztailaren 2ko 350/2018 Ebazpenari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Skolae programako fitxa batean ageri diren abestien zerrendari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, EH Bilduko buruzagi Arnaldo Otegi Kataluniako Generalitateko lehendakari Quim Torrarekin egindako bilera publiko batean Nafarroako bandera erabili izanari buruzkoa. Ana Beltrán Villalva andreak egin du (18. or.).
- Galdera, Europako Banku Zentralak zor publikoa erosteari uzteak aurrekontuan izan ditzakeen ondorioei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, jakiteko ea zertan den eskumenak eskualdatzeko prozesua. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Nafarroako 2019rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuan NUPeko medikuntzako fakultaterako jasotako aurrekontu-zuzkidurari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, hartz eme batek Nafarroako Pirinioan ustez egindako eraso bat dela-eta Nafarroako Gobernuak abiaraziko dituen jarduketari buruzkoa. M.^a Concepción Ruiz López andreak egin du (20. or.).
- Galdera, “Palacio de Arozteguia SL enpresak Lekarotzen (Nafarroa) sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-proiektua foru erkidegoaren intereseko inbertsioa izatearen deklarazioa berritzeko arrazoiei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, sindikatuek eta Nafarroako patronalak enplegu plan adostu, itundu eta sinatu bat ez edukitzeko arrazoiei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, Bardeako tiro-poligonoa eraisteari buruzkoa. Carlos Couso Chamarro jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, San Fermin festetan hotel-egonaldiak jaitsi izanari buruzkoa. Galdera erretiratzea (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, aldatzen duena Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren testu bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitakoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2018ko azaroaren 14an hartutako Erabakiaren bidez, honako foru lege proiektu hau igorri dio Nafarroako Parlamentuari: "Foru Lege proiektua, aldatzen duena Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren testu bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitakoa".

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Aipatu foru lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proiektua, aldatzen duena Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren testu bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitakoa.

HITZAURREA

Hipoteka berme-eskubide erreal bat da, eta betebeharrak bat –gehienetan kreditu edo mailegu baten itzulketa– beteko dela ziurtatzeko eraten da. Betebeharrak hori ordaindu ezean, titularrari ondasun higiezin baten balioa gauzatzeko eskubi-dea ematen dio, ordaindu gabekoaren ordainetan. Beraz, ondasun higiezin hori mailegua ematen duen pertsonaren edo entitatearen aldeko berme bihurtzen da, kreditu edo maileguaren ordainketa ziurtatzeko.

Eskubide erreal horrek ezaugarri berezi bat dauka: behar bezala eratuta egoteko, haren eskritura publikoa egin beharra dago, eta Jabetzaren Erregistroan inskribatu. Hori dela eta, eskritura publikoa egitea hipoteka-bermea duen maileguaren funtsezko elementua da.

Begi bistakoa da hipoteken merkatua, oro har, eta etxebizitzena, bereziki, garrantzi handiko sektorea dela Nafarroako ekonomian eta jende askorengan duela eragina. Hipoteka-bermea duten mailegu kontratuen formalizazioa merkataritza jarduera bat da, gizartean ondorio eta garrantzi nabarmenak dituena.

Horrekin lotuta, komeni da gogoratzea ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergak hiru modalitate desberdin hartzen dituela:

a) Kostu bidezko ondare-eskualdaketen gaineko zerga, BEZa ordaintzen ez duten kostu bidezko ondare-eskurapenak kargatzen dituena.

b) Sozietateen eragiketen gaineko zerga, merkataritza sozietateei eta horiekin parekatutako entitateei dagozkien zenbait eragiketa zergapezen dituena.

c) Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, zenbait egintzaren edo kontraturen formalizazio dokumentala zergapetzen duena, hala nola hauena:

– Agiri notarialak, eskritura, akta eta lekukotza notarialak barne hartuta.

– Merkataritza agiriak, hala nola kanbio-letra eta harekin parekatuak.

– Agiri administratiboak, batez ere erregistro publikoetako prebentziozko idatzoharrak.

Aurrekoaren arabera, esan daiteke egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga hau zerga dokumental eta formal bat dela, eta xede duela, besteak beste, hipoteka-maileguaren eskritura publikoaren agiri notariala zergapetzea. Horrela, hipoteka-bermea duen maileguaren eskritura publikoa egiteak berekin dakar egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren sortzapena, agiri notarialen modalitatean.

Apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ondare-eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren testu bateginean, 21. artikuluan, xedutakoaren arabera, egintza juridiko dokumentatuen modalitateari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitatean zergaren subjektu pasiboa ondasun edo eskubidearen eskuratzailerak da eta, halakorik ez badago, egintzak sustatzen edo eskatzen dituztenak, edo noren interesaren alde ematen diren, horiek. 21. artikulua berak bigarren paragrafoan zehazten duenez, egintzak bermedun mailegua eratzeko eskriturak direnean, eskuratzailerak mailegu-hartzailea dela ulertuko da. Beraz, Nafarroako legearen egileak argi ezarri du mailegu-hartzailea dela subjektu pasiboa bermedun maileguak eratzeko eskrituren kasuan. Eta nabarmendu behar da, halaber, foru arauak berariaz aipatzen duela mailegua eratzeko eskritura, eta ez maileguarekin zerikusia duten beste eskritura batzuk, kitatzekoa, adibidez. Horrez gain, bidezkoa da azpimarratzea Nafarroako foru arauak orokorrean aipatzen duela bermedun mailegua, hipoteka-bermeaz aipamen berezirik egin gabe. Horrek esan nahi du hipoteka-koaz beste berme erreal batzuk ere barne hartzen dituela.

Azken asteetan epaileen ebazpen eta erabaki kontrajarri batzuen berri izan dugu. Alde batetik, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren Bigarren Atalak, urriaren 16ko 1505/2018

Epaian, urriaren 22ko 1523/2018 Epaian eta urriaren 23ko 1531/2018 Epaian, zergari buruzko Estatuko Erregelamenduaren 68. artikuluko 2. apartatua baliogabetu zuen; horren testua eta arestian aipatutako foru arauaren 21. artikuluko bigarren paragrafoa antzekoak ziren (ondare-eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren testu bategina). Apartatu hori baliogabetearen ondorioz, erabateko iraulteta gertatu zen hipoteka-mailegu bat eratzean estatuan ordaindu beharreko zergari dagokionez: ordutik aurrera, subjektu pasiboa mailegua ematen duen pertsona edo entitatea izan behar zen.

Nabarmendu beharra dago arau egoera oso desberdina dela estatuan eta Foru Komunitatean, Auzitegi Gorenak estatuko erregelamenduzko arau bat baliogabeteak ez duelako eraginik Nafarroako Foru Komunitateko legearen balio juridikoa, Nafarroako legea Parlamentuaren adierazpen subiranoa delako, esleiturik dauzkan tributu eskumenak osotara baliatzearen ondorioz.

Halere, eta aurrekoa ukatu gabe, bistan da epai horien ondorioek, apartatua baliogabeteak alegia, zalantzak eta segurtasun juridikoaren falta areagotu dituztela hipoteken merkatuan, onartezinak izateraino areagotu ere. Hori gutxi balitz, hiru aste geroago, 2018ko azaroaren 6an, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Sailaren Osoko Bilkurak erabaki zuen mailegu-hartzailea izatea berriz, estatuan, hipoteka-bermea duten maileguen eskriturako formalizazioaren gaineko zergaren subjektu pasiboa.

Amaitzeko, azaroaren 8ko 17/2018 Errege Dekretu-legeak egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga aldatu du estatuan, eta ezarri mailegu-emailea izanen dela subjektu pasiboa hipoteka-bermea duen maileguaren eskrituren kasuan.

Estatuan arau nahiz jurisprudentzia arloan gertatu diren aldaketa azkar horiek herritarren artean sortu duten egonez eta harridura egoera amaitzeko, foru lege honek aldaketak egiten ditu ondare-eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren testu bateginaren 21. eta 35. artikuluetan. Testu bategina apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

Horrela, Nafarroako araua hein batean estatuko arauaren edukiarekin bat etor dadin, 21. artikuluko bigarren paragrafoan ezartzen da mailegu-emailea izanen dela subjektu pasiboa, bermedun mailegua eratzeko eskrituren kasuan. Hortaz, Foru Komunitatean ordura arte indarra zuen legezko araua ere aldatzen da, subjektu pasiboari dagokionez. Aitzitik, gainerako testua bere horre-

tan uzten da, hau da, Nafarroako foru araua bermedun mailegua eratzeko eskriturei buruz ari da.

Horrekin batera, 35.I.B) artikuluari atal berri bat eransten zaio, 30.a, xede honekin: mailegu-hartzaileak salbuespen subjektiboa dueneko zenbait kasu aurrerantzean ere kargatik salbuetsirik egotea, aipatutako 21. artikuluan egindako aldaketak horietan eraginik izan gabe.

Egoki da aipatzea xedapen indargabetzailearen edukia. Alde batetik, ohiko formula erabiltzen da, esan nahi baita, indargabetzen direla foru lege honetan xedatutakoaren kontrako maila bereko edo beheragoko arauetan sartuta dauden xedapen guztiak. Bestetik, zehaztaperen bat gehitzen da, alegia indargabetzen dela kreditu kooperatibentzat Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen 27.1.b) artikuluan jasotzen den zerga onura, bermedun mailegua eratzeko eskrituren kasuan, entitate horiek mailegu-emaile direnean.

Halaber, azken xedapenetako lehena gehitzen da, ezartzeko ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergak, agiri notarialen modalitatean, dakarren tributu zorra ez dela kengarria izanen sozietateen gaineko zergan, betiere ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren testu bateginaren 21. artikuluko bigarren paragrafoan aipatzen diren kasuetan, hau da, mailegu-emailea denean bermedun mailegua eratzeko eskrituren subjektu pasiboa.

Amaitzeko esan behar da ezen, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari dagokionez, arau aldaketek eragina izanen dutela foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera gertatzen diren zerga-egitateetan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera, beraz. Zehazki, legea argitaratu eta biharamunetik aurrera formalizatzen diren bermedun maileguen eskritura publikoei eraginen diete.

Nabarmendu behar da, halaber, asmoa dela ahalik eta azkarren egitea foru lege proiektu honen tramitazioa, kontuan hartuta haren edukia eta konpondu beharreko egoera. Horretarako, behin Nafarroako Gobernuak foru lege proiektua onetsi ondoren, Nafarroako Parlamentuan tramitatuko da Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren VI. tituluko III. kapituluko 4. sekzioan xedatutakoarekin bat. Horren arabera, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 158. artikuluko bide ematen du proiektua zuzenean eta irakurketa bakarrean tramitzeko Parlamentuko osoko bilkuran. Foru lege proiektu honen kasuan betetzen

dira artikulua horretan ezarritako betebeharrak (proiektuaren izaera dela-eta komenigarria izatea, edo haren formulazio errazak aukera ematea), laburra eta oinarri errazekoa delako. Beste alde batetik, arestian esan denez, neurria lehenbailehen abian jartzea ezinbestekoa da hipoteken merkaturan orain dauden zalantzak eta segurtasun juridikoaren falta azkar eta eraginkortasunez desagerrarazteko.

Artikulu bakarra. Aldatzea Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren testu bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitakoa.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera gertatzen diren zerga-egitateetarako, testu hau izanen dute apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko testu bateginaren ondoko arau hauek:

Bat. 21. artikulua.

“21. artikulua.

Subjektu pasiboa ondasunaren edo eskubidearen eskuratzailerak izanen da, eta, halakorik izan ezean, eskriturak sustatu edo eskatzen dituztenak, edo noren interesaren alde ematen diren, horiek.

Bermedun mailegua eratzeko eskriturak direnean, mailegua ematen duen pertsona edo entitatea izanen da subjektu pasiboa”.

Bi. 35.I.B) artikuluari 30. atala gehitzea.

“30. Bermedun mailegua eratzeko eskriturak, mailegu-hartzailea aurreko A) letran sartutako pertsona edo entitateetako bat denean”.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indarrak gabe geratzen dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Bereziki, indargabetzen da kreditu kooperatibentzat Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen 27.1.b) artikuluan jasotzen den zerga onura, bermedun mailegua eratzeko eskrituren kasuan, entitate horiek mailegu-emaile direnean.

Azken xedapenetako lehenbizikoa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen aldaketa.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera hasten diren zergaldietan ondorioak izateko, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 23.1 artikuluari m) letra berria gehitzen zaio.

“m) Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren tributu zorra, egintza juridiko dokumentatuen modalitateko agiri notarialeki dagokionez, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Doku-

mentatuen gaineko Zergaren testu bateginaren 21. artikuluko bigarren paragrafoan aipatzen diren kasuetan”.

Azken xedapenetako bigarrena. Arauak emateko ahalmena.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta betetzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra eta ordutik aurrera izanen ditu ondorioak.

Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko Foru Lege proiektua.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Talde parlamentarioen zein foru parlamentarien elkarteen eledunek eskatu dute Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea luzatzea.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2018ko azaroaren 27ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2018ko urriaren 26ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege proiektua.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

María Carmen Segura Moreno andreak eskatu du Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea luzatzea.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2018ko azaroaren 30eko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2018ko irailaren 6ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroan etxebizitzarako eskubide subjektiboa arautzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko azaroaren 15ean egindako bileran, erabaki zuen Nafarroan etxebizitzarako eskubide subjektiboa arautzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Foru Lege proposamen hori Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioek eta Izquier-

da-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu zuten, eta 2018ko azaroaren 2ko 131. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, Nafarroan etxebizitzarako eskubide subjektiboa arautzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2018ko azaroaren 153an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Nafarroan etxebizitzarako eskubide subjektiboa arautzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu eta 2018ko azaroaren 2ko 131. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111. eta 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea presazko prozedurari jarraikiz izapidetu dadin Nafarroan etxebizitzarako eskubide

subjektiboa arautzen duen Foru Lege proposamena.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Eskubide Sozialetako Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **epe bat hasiko da, 2018ko abenduaren 10eko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nuria Medina Santos andreak eskatu du Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea luzatzea.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikuluekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzkoa Foru Lege pro-

posamenari zuzenketak aurkezteko epea **2018ko azaroaren 28ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2018ko ekainaren 15eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriz ere protokolo bat sina dezan Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzarekin, terrorismoa goratzeko pintadak ezabatzeko.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berriz ere protokolo bat sina dezan Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzarekin, terrorismoa goratzeko pintadak ezabatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzera, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beste protokolo bat sina dezan Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzarekin, terrorismoa goratzeko pintadak ezabatzeko.

2012an protokolo bat sinatu zuten Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzak, azkar kentzeko Nafarroako herrietan terrorismoa goratzeko agertzen ziren pintadak eta pankartak, udalek –kale-garbiketaren arloko arduradunek– ez baldin bazituzten kentzen.

Protokolo horrekin, bai Foruzaingoak, bai Polizia Nazionalak, bai Guardia Zibilak, Barne Zuzendaritza Nagusiari edo Gobernuaren Ordezkaritzari hurrenez hurren informatzen zioten pintadak agertu izanaz, eta bi erakunde horiek automatikoki bidaltzen zioten informazioa elkarri, bikoiztasunak ekiditeko.

Pintadak Estatuaren Administrazio Orokorra- ren edo Nafarroako Gobernuaren jabetzako erai- kintan edo seinaleetan baldin bazeuden, bereha- la ezabatzen edo kentzen ziren. Aldiz, bide publikoetan baldin bazeuden –dela eraikin pribatuetan edo publikoetan, dela hiri-altzarrietan– Gobernuaren Ordezkaritzak kasuko udalari jakina- razten zion hark ezaba zitzan, eta ezabatu ezean, Nafarroako Gobernua arduratzen zen pintada edo pankarta haiek kentzeaz, udalaren kargura.

Protokolo horrek behar bezala funtzionatzen zuen, eta urtea joan urtea etorri hainbat pintada ezabatu ziren udalak ezabatzeari uko egindako herrietan.

Halere, ustekabeen eta alde zuzeneko inolako komunikaziorik gabe, Nafarroako Gobernuak protokoloa salatzea eta bukatutzat ematea erabaki zuen, eta Nafarroako Gobernuak ez du jokabide horri buruzko inolako azalpenik eman.

Azkenaldian ikusten ari gara pankarta eta pin- tada iraingarriak edo terrorismoa edo terroristak ustez goratzekoak agertzen ari direla Nafarroako hainbat herritan, eta alkateek ez dute batere pre- sari horiek ezabatzeko. Hortaz, inoiz baino beha- rrezkoagoa da Espainiako Gobernuaren Nafarroa- ko Ordezkaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzaren protokolo bat sinatzea berriz ere, halako moduan non lehenbailehen ekidinen baitira pintada horiek, samingarriak eta irainga- rriak direnak batez ere terrorismoaren biktimen- tzat.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berriz ere sina dezan protokolo bat Espainiako Gobernuaren Nafarroako

Ordezkaritzarekin, terrorismoa edo terroristak goratzeko pintadak eta pankartak ezabatzeko edo kentzeko.

Iruñean, 2018ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru dekretu bidez arau ditzan zer baldintza higieniko-sanitario bete behar dituzten lehen mailako ekoizpenak eta hari lotutako jarduerak nahiz salmenta zuzena edo merkaturatze-zirkuitu laburrekoa egiten duen nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategi txiki bati lotutako nekazaritzako elikagaien eraldaketak eta merkaturatzeak.

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita foru dekretu bidez arau ditzan zer baldintza higieniko-sanitario bete behar dituzten lehen mailako ekoizpenak eta hari lotutako jarduerak nahiz salmenta zuzena edo merkaturatze-zirkuitu laburrekoa egiten duen nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategi txiki bati lotutako nekazaritzako elikagaien eraldaketak eta merkaturatzeak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdikoa hamabietan.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroan, 8/2010 Foru Legeak arautzen du nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategi bati lotutako produktuen zuzeneko salmenta; araudi horrek ukitzen dituen enpresak zehazten ditu, eta beharrezkoak diren baldintzak ezartzen ditu enpresa ekoizle eraldatzailea izan ahal izateko. Foru lege horrek aukera bat zabaldu zuen ustiategi txiki eta ertainek beren produktuak eraldatu eta merkaturatu ahal izateko.

Errealitatean, ordea, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategien arduradunek ustiategi horien bideragarritasuna auzitan ikusten dute higie-ne-paketea deitutakoaren baldintzak betetzeko egin beharreko inbertsio ekonomikoengatik, batez ere beren produktuak tokian bertan eraldatzeko beharrezkoak diren instalazioetan egin beharrekoengatik. 8/2010 Foru Legeak, berez, ez die konponbiderik ematen sektore horrek planteatutako zailtasunei, baina bai ezartzen du zer baldintza bete behar diren zuzeneko salmenta egiten duen enpresa ekoizle eraldatzailea izateko. Ez dauka, ordea, arau-esparru argirik neurri higieniko-sanitarioak landa-ekoizpen txikien ezaugarrietara egokitu ahal izateko eta ekoizpen- eta eraldatze-modalitate horiek baldintza orokorretatik salbuesteko, hartara uneoro bermatuko baitira elikagai-segurtasuna eta higie-ne-jardunbide egokien gida edo, kasua bada, Arriskuen eta Kontrol Gune Kritikoan Azterketa sinplifikatua aplikatzen dela, Europako araudiak dioena betez.

Egungo arau-esparrua Europako zenbait arauk zedarrituta dago; hain zuzen ere, elikagai-produk-

tuek bete beharreko baldintza higieniko-sanitarioak ezartzen dituzten erregelamenduak dira. Halere, aplikazioa bereizten edo egokitzen du amaierako kontsumitzaileari edo amaierako kontsumitzailearentzako salmenta-establezimenduei zuzendutako lehen mailako ekoizpeneko kopuru txikiei begira —852/2004 eta 853/2004 erregelamenduak (EE)—, bai eta animali jatorriko produktu eraldatu batzuen merkaturatzeari begira ere, amaierako kontsumitzaileari edo amaierako kontsumitzailearentzako salmenta-establezimenduei zuzendutakoa denean, betiere jarduera horrek ehuneko txikia egiten duenean eta modu lokalizatu eta murriztuan egiten denean —853/2004 Erregelamendua (EE)—.

Malgutasuna bi inguruabarren arabera interpretatzen da: alde batetik, erregelamenduek ematen duten gaitasuna da, nekazaritzako elikagaien enpresek elikagai seguruak elaboratzen dituztela erakutsi ahal izateko ahalmena izan dezaten, kontrol-prozedurak, egiturazko elementuak eta libreki hautatutako eta banakako inguruabarrei egokitutako ekoizpen-metodoak erabiliz; beste aldetik, agintaritzak eskudunek prozedura, elementu eta metodo horiek ulertzeko eta ebaluatzeko betebeharra dute, bai eta haiek onartzeko eta baimentzeko erantzukizuna ere, erregelamenduak halakorik eskatzen duenean.

Estatuko legediak —Elikagai enpresen eta elikagaien osasun erregistro orokorrari buruzko otsailaren 18ko 191/2011 Errege Dekretuaren 2.2 artikulua— honako hau dio:

“Erregistroan izen emateko betebeharretik salbuetsita egonen dira, dagozkien kontrol ofizialak eragotzi gabe, amaierako kontsumitzaileari edo kolektibitateei tokian bertan saltzeko eta entregatzeko elikagaiak manipulatu, eraldatu, ontziratu, biltegitatu edo zerbitzatu baizik egiten ez duten establezimenduak eta haien enpresa titularrak, etxez etxeko banaketa egin nahiz ez egin; halaber, salbuetsita egonen dira ezaugarri berak dituzten establezimenduak hornitzen dituztenean eta jarduera hori marjinala denean bai termino ekonomikoetan bai ekoizpenekoetan ere, haiek egiten dutenaren aldean, eta hori tokiko unitate sanitario baten, osasun barruti baten edo kasuko agintaritzak eskudunak antzeko ezaugarriak dituela zehazten duen lurralde baten esparruan egiten bada”.

Dekretu horrek berak gehitzen du establezimenduek izen eman beharko dutela berariaz sortutako erregistro autonomikoetan, zeinek aukera eman beharko luketen legezko estaldura emateko gure herrialdeko abeltzaintzako eta nekazaritzako ustiatuek elaboratutako produktuen zuzeneko

salmentari, beren jardueren osagarri eta haiek dibertsifikatze aldera.

Espainiako Konstituzioan diseinatutako lurralde-antolamenduak ahalbidetzen du autonomia-erkidegoek sanitarean arloko eskumenak berengana ditzaten, Estatuarentzat gordez horien oinarrien erregulazioa eta koordinazio orokorra. Horrela, bada, Nafarroako Foru Komunitateari dagokio barne osasunaren eta higienaren arloko araubidea lege bidez garatu eta hura betearazteko eskumenak erabiltzea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 53. artikulua-aren arabera. Lehentasunezkoa da une honetan Europako betekizunak egokitzea eta Europako erregelamenduetan aurreikusitako malgutasun-neurrien erregelamendu bidezko garapena, bai eta haiek Nafarroako ustiatuei txikien berariazko ezaugarrien arabera egokitzea ere, une oro nekazaritzako elikagaien segurtasuna bermatuz.

Azaldutako guztiagatik, erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen duen foru dekretu bidez arau dituzten zer baldintza higieniko-sanitario bete behar dituzten, malgutasun neurriekin egokiturik, lehen mailako ekoizpenak eta hari lotutako jarduerak nahiz salmenta zuzena edo merkaturatze-zirkuitu laburrekoa egiten duen nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiatuei txiki bati lotutako nekazaritzako elikagaien eraldaketak eta merkaturatzeak, Nafarroako Foru Komunitatearen esparrukoak direnean.

2. Nafarroako Parlamentuak, landa-ekoizpen txikiaren aldeko apustua egiten baitu, Nafarroako Gobernuak premiatzen duen honako haiek jaso ditzan foru dekretu horretan eta foru dekretuak erregelamendu bidez garatzen duten arau teknikoetan eta produktu nahiz produktu-multzo bakoitzari buruzkoetan:

i. Elikagai-kantitate mugatuak eraldatu edo elaboratu eta salmenta zuzenean edo merkaturatze-zirkuitu laburrekoan merkaturatu nahi dituzten ekoizle txikiak eta nekazaritzako elikagaien egileek bete beharreko baldintza, betebeharrak eta erantzukizun orokorrak.

ii. Salmenta zuzenaren aldeko hautua egiten duten ekoizle txiki horientzako berariazko baldintzak: elikagai-jardueren erregistro autonomikoari jardueraren hasiera aurretiaz komunikatzea, urteko jardueraren deklarazioa egitea eta jardunbide higieniko egokien gida aplikatzea.

iii. Merkaturatze-zirkuitu laburraren aldeko hautua egiten duten ekoizle txiki horientzako berariazko baldintzak, pertsona, entitate edo bitarteko-establezimendu bakarrekoak badira: erregistro autonomikoari jardueraren hasiera komunikatzea, jardunbide higieniko egokien gidak aplikatzea eta osasun arloko ikuskapenen aldeko txostenak edukitzea.

iv. Urteko bolumena mugatzea, bai eraldatze-elaboratzeari bai merkaturatzeari buruzkoa, produktu edo produktu-multzo bakoitzerako taxutzen diren arau teknikoetan zehazten denarekin bat.

v. Egokitzapenak ahalbidetzea ekipamenduetan eta instalazioetan, ekoizleek beren lehengaiak eraldatzen edo elaboratzen dituzten horietan, zuzeneko salmentarako edo merkaturatzerako zirkuitu laburreko salmentarako.

vi. Muga geografiko berezietan edo ustategien eraikuntzaren, diseinuaren eta ekipamenduaren arloko mugei erantzuten dieten egokitzapenak ahalbidetzea.

vii. Kontrol-puntu kritikoen aplikazioa sinplifikatzea eta, kasua bada, higiene-jardunbide egokiak ordezkatzea, ekoizpen-mota honi aplikatzen heldu diren malgutasun-irizpideei jarraikiz (produktu edo produktu-mota bakoitzerako prestatzen diren gidetan zehaztuko dira).

vii. Betekizun horiek berariazko produktuetarako edo produktu-multzoetarako betekizun higieniko-sanitarioen egokitzapenari buruzko berariazko arau teknikoetan zehaztuko dira, eta foru agindu bidez onetsiko dira.

ix. Malgutasun-irizpideen aplikazioa errazte aldera, higiene-jardunbide egokiak taxutuko dira, Administrazioak eta landa-inguruneko ekoizpenean eta eraldaketan inplikaturako sektoreek batera ezarritakoaren arabera.

x. Elikagaien arloko jardueren osasun erregistro autonomikoa sortzea; besteak beste, jasoko du zuzeneko salmenta egiteko edo merkaturatze-zirkuitu laburretan saltzeko betekizun higieniko-sanitarioen malgutzea aplikatuko zaien ekoizle-prestatzaileen zerrenda.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erabaki honetan jasotzen diren edukiak garatuko dituen foru dekretuaren proiektua taxutu dezan, erabaki hau argitaratzen denetik hiru hilabeteko epean.

Iruñean, 2018ko azaroaren 15ean

Foru parlamentariak: Unai Hualde Iglesias, David Anaut Peña, Teresa Sáez Barrao eta Marisa de Simón Caballero

F saila:
GALDERAK

Galdera, nekazaritzako elikagaien industrian inbertitzeko laguntzen 2017ko deialdiari buruzkoa.*MARIANO HERRERO IBÁÑEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mariano Herrero Ibáñez jaunak aurkeztutako galdera, nekazaritzako elikagaien industrian inbertitzeko laguntzen 2017ko deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita

dagoen Mariano Herrero Ibáñez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomikorako lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nekazaritzako elikagaien industrian inbertitzeko laguntzen 2017ko deialdiari dagokionez,

Eskabideak aurkezteko epea bukatu osteko lau hilabeteetan ebatzi al dira 2017ko abenduaren 15ra bitarte aurkeztutako eskabide guztiak? Zenbat ebatzi dira geroago edo ez dira espresuki ebatzi eta, hortaz, ezetsizat eman dira?

Iruñean, 2018ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Mariano Herrero Ibáñez

Galdera, helduen txerto-egutegian txerto polisakaridoaren ordeztu pneumoniaren aurkako txerto konjugatua sar dadin SEMG, SEMERGEN eta ANPE elkarten ordezkariak egindako eskariari buruzkoa.

KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako gaurkotazko galdera, helduen txerto-egutegian txerto polisakaridoaren ordeztu pneumoniaren aurkako txerto konjugatua sar dadin SEMG, SEMERGEN eta ANPE elkarten ordezkariak egindako eskariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Koldo Martínez Urionabarrenetxeak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Pneumoniaren aurkako Nazioarteko Egunaren kariatara, SEMG, SEMERGEN eta ANPE elkarten ordezkariak azpimarratu zuten zer garrantzitsua den patologia horri buruzko sentsiberatasun soziala areagotzea, eta bidenabar Nafarroako agintariei eskatu zieten helduen txerto-egutegian txerto polisakaridoaren ordeztu pneumoniaren aurkako txerto konjugatua sar dezaten.

Eskaera horiek ikusita, honako hau galdetzen diogu Nafarroako Gobernuari:

Zer egingen du arazo horri aurre egiteko?

Iruñean, 2018ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Galdera, arrisku-taldeetan pneumoniaren aurkako txertoa doakoa izateari buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, arrisku-taldeetan pneumoniaren aurkako txertoa doakoa izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Oinarrizko Osasun Laguntzako sozietate zientifikoen (SEMERGEN, SEMG eta ANPE) eskatu dute pneumoniaren aurkako txertoa egutegian sar dadin, halako moduan non arrisku taldeek (65 urtetik goitikoek, diabetikoek edo biriketako gaixotasun kronikoak dauzkatenean) doan eskuratu ahal

izanen baitute txertoa. Zer balorazio egiten duzu eta zer neurri hartuko dira hori dela-eta?

Iruñean, 2018ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, Espainiako gainontzeko erkidegoen aldean langabeziak legegintzaldi honetan Nafarroan izan duen bilakaerari buruzkoa.

LUIS CASADO OLIVER JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Casado Oliver jaunak aurkeztutako galdera, Espainiako gainontzeko erkidegoen aldean langabeziak legegintzaldi honetan Nafarroan izan duen bilakaerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Luis Casado Oliver jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozietako lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2018ko hirugarren hiruhilekoko Biztanleria Aktiboaren Inkesta argitaratu eta gero, Eskubide Sozietako lehendakariorde Miguel Laparrak balorazio positiboa egin du langabeziaren Nafarroako datuei buruz.

Lehendakariordea berdin pozik al dago eta era positiboan baloratzen al du langabeziak Nafarroan, Espainiako gainontzeko erkidegoen aldean, legegintzaldi honetan izan duen bilakaera?

Iruñean, 2018ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Luis Casado Oliver

Galdera, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren uztailaren 2ko 350/2018 Ebazpenari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren uztailaren 2ko 350/2018 Ebazpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeko Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dakion:

– Hezkuntzako zuzendari nagusiaren uztailaren 2ko 350/2018 Ebazpenak ezartzen du Nafarroako ikastetxeetan derrigorrezkoak izanen direla departamentuak Skolae izendatutako hezkidetzeta programa eta departamentuak aukeratu dituelako 2018-2019 ikasturtean programa ezarriko duten zentroek aukeratutako ikasleentzako prestakuntza-ikastaroak. Hezkuntza Departamentuak ebazpena aldatuko al du?

Corellan, 2018ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Skolae programako fitxa batean ageri diren abestien zerrendari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Skolae programako fitxa batean ageri diren abestien zerrendari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Hezkuntzako kontseilari Maria Solana andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Solana andrea, ba al dakizu nork egin zuen Skolae programako fitxa batean "Sexismoa sustatzen duten abestien zerrenda" izenburupean ageri diren abestien zerrenda?

Iruñean, 2018ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, EH Bilduko buruzagi Arnaldo Otegi Kataluniako Generalitateko lehendakari Quim Torrarekin egindako bilera publiko batean Nafarroako bandera erabili izanari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALVA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalva andreak aurkeztutako gaurkotasunezko galdera, EH Bilduko buruzagi Arnaldo Otegi Kataluniako Generalitateko lehendakari Quim Torrarekin egindako bilera publiko batean Nafarroako bandera erabili izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkartearen eledun Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko lehendakari Barkos andreak ezer esatekorik al du EH Bilduko buruzagi Arnaldo Otegi Kataluniako Generalitateko lehendakari Quim Torrarekin egindako bilera publiko batean Nafarroako bandera erabili izanari buruz?

Iruñean, 2018ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Europako Banku Zentralak zor publikoa erosteari uzteak aurrekontuan izan ditzakeen ondorioei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Europako Banku Zentralak zor publikoa erosteari uzteak aurrekontuan izan ditzakeen ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Europako Banku Zentralak zor publikoa erosteari uzteak zer ondorio izan litzake aurrekontuan?

Iruñean, 2018ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakiteko ea zertan den eskumenak eskualdatzeko prozesua.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea zertan den eskumenak eskualdatzeko prozesua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Honako hau jakin nahi dut Nafarroako Foru Komunitateak eskuratzeke dauzkan eskumenak eskualdatzeari dagokionez, Estatuko Gobernuak nahiz Nafarroako erakundeek zenbait esparrutan adierazitako borondate partekatua ikusita:

- Zertan da eskumenak eskualdatzeko prozesua?

Iruñean, 2018ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako 2019rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuan NUPeko medikuntzako fakultaterako jasotako aurrekontuzuzkidurari buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako gaurkotasunezko galdera, Nafarroako 2019rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuan NUPeko medikuntzako fakultaterako jasotako aurrekontuzuzkidurari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Gimeno Gurpegui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak azaroaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen proiektua 2018ko urriaren 31n iritsi zen Nafarroako Parlamentura.

Nafarroako Gobernuaren adierazpenen arabera, 2019-2020 ikasturterako dago aurreikusita NUPen Medikuntza Fakultatea ezartzea. 2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen proiektuak zer aurrekontuzuzkidura jasotzen du horretarako?

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, hartz eme batek Nafarroako Pirinioan ustez egindako eraso bat dela-eta Nafarroako Gobernuak abiaraziko dituen jarduketei buruzkoa.

M.^a CONCEPCIÓN RUIZ LÓPEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.^a Concepción Ruiz López andreak aurkeztutako galdera, hartz eme batek Nafarroako Pirinioan ustez egindako eraso bat dela-eta Nafarroako Gobernuak abiaraziko dituen jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako M.^a Concepción Ruiz López andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariari, azaroaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Oraintsu izan dugu hartz eme batek Nafarroako Pirinioan ustez egindako eraso baten berri.

Nafarroako Gobernuak zer neurri abiaraziko ditu hori dela-eta?

Iruñean, 2018ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: M.^a Concepción Ruiz López

Galdera, “Palacio de Arozteguia SL enpresak Lekarotzen (Nafarroa) sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-proiektua foru erkidegoaren intereseko inbertsioa izatearen deklarazioa berritzeko arrazoiei buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasunezko galdera, “Palacio de Arozteguia SL enpresak Lekarotzen (Nafarroa) sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-proiektua foru erkidegoaren intereseko inbertsioa izatearen deklarazioa berritzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Adolfo Araiz Flamarique jaunak Nafarroako Gobernuko GARapen Ekonomikorako kontseilariari zuzendutako gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2018ko azaroaren 22an egin beharreko kontrol-eko Osoko Bilkuran izapidetzeko:

Nafarroako Gobernuak honako erabaki hau hartu zuen iragan azaroaren 14an:

“Palacio de Arozteguia SL enpresak Lekarotzen (Nafarroa) sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-proiektua foru erkidegoaren intereseko inbertsioa izatearen deklarazioa berritzea, Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzko abenduaren 9ko 15/2009 Foru Legearen 4. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako. Deklarazio honek erabaki hau onesten denetik inbertsio-proiektua bukatu bitarte izanen ditu ondorioak”.

Hori dela-eta, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten diogu Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikorako kontseilariari:

Nafarroako Gobernuak zer arrazoi hartu ditu kontuan Palacio de Arozteguia SL enpresak sustatutako egoitza-proiektu zeharo espekulatibo baten deklarazioa –Yolanda Barcina Angulo andrea buru zuen UPNren jarduneko Gobernuak 2015eko ekainaren 3an onetsia– berritzeko, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru-dekretuaren 46.2 a) artikulua ezarritakoari jarraikiz ofizioz jardun beharrean?

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, sindikatuek eta Nafarroako patronalak enplegu plan adostu, itundu eta sinatu bat ez edukitzeko arrazoiei buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasunezko galdera, sindikatuek eta Nafarroako patronalak enplegu plan adostu, itundu eta sinatu bat ez edukitzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak erantzun diezaion:

Zer arrazoi dago sindikatuek eta Nafarroako patronalak enplegu plan adostu, itundu eta sinatu bat ez edukitzeko?

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Bardeako tiro-poligonoa eraisteari buruzkoa.

CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamarro jaunak aurkeztutako gaurkotasunezko galdera, Bardeako tiro-poligonoa eraisteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamarrok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2018ko azaroaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak zer egin du edo zer egingen du Bardeako tiro-poligonoa eraiste aldera Legebiltzar honek onetsitako erabakiak bete daitezten?

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamarro

Galdera, San Fermin festetan hotel-egonaldiak jaitsi izanari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ana María Beltrán Villalba andreak San Fermin festetan hotel-egonaldiak jaitsi izanari buruz aurkezturi-

ko galdera erretiratu duela. Galdera 2017ko irailaren 11ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

